

Seca e Salgada

Iñaki Basterretxea



enskara
txanpan

Seca e Salgada

Iñaki Basterretxea

Julene Azpeitia 26. ipuin lehiaketa

2013

1. saria

2013ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Iñaki Basterretxea (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

-Hara, gaur ere simaurra afaritan! Zer da? kanga, edo panga, edo dena delako zikinkeria hori, ezta? -hasi da Damianen gaueroko letania, arrain errukarriaren alea bere platerean ikusi orduko.

Jantokiko zerbitzari hegoamerikarrak ondotik irribarrez -El pescado es muy bueno para los achaques señor Damian- esan dio, eta -ojalá te ahogues con una espina, momia del carajo- ere bai, baina azken hau agurearen entzumen perimetrotik kanpo.

Damianek jaramonik egin gabe, platera paretik kendu eta denak batuta mila urtetik gora izango dituen hamalau laguneko audientziara zuzendu du bere mitina.

-Gure garaian pizti hauetako sarda bat sarean sartzen bazitzaigun, azpitik zabaldu eta itsasoari bueltan! Eta eurak batzen galdutako denboraren penaz gainera! -dio argudioa indartzeko buruarekin baietz eginez.

Eta amaitzeko, entzuleen gehiengoak gogoratu ez arren, panga afaltzen den bakoitzean azaldu ohi duen profezia:

-Ikusiko duzue bai, beno agian zuek ez duzue ikusiko, eta ezta nik ere noski, baina iritsiko da lazuna bera ere platerean jarriko diguten eguna! Eta nonbait toxikotasuna frogatzeko edo gizakiekin probarik egin behar bada, hemen bertan egingo dute. -Azkena Damianek ere modu isilxeagoan bota du. Kasu honetan, ordea, tutik ere ulertu ez arren zerbitzari hegoamerikarrak entzun egin dio, audientzia beteranoaren gehiengoak ez bezala.

Pangari zor dion begirunea argi azaldu ostean, platera berriro parera ekarri eta gaurko honetan jan egin du. Bere harrotasunarekin batera irentsi du oso-osorik. Badaki, aurrekoetako esperientziatik ondo jakin ere, berari ez diotela gainontzeko aitona-amona mantsoei bezala tortilla frantses bat frijituko. Gaur gauekoak afari sendoa izan behar du gainera, ez daki eta bihar ezer jaterik izango duen.

Adelaida hil eta hiru aste baino lehen zapaldu zuen lehenengoz zahar-etxea Damianek. Errainaren diskurtsoa hiru aste orduko guztiz aldatu zenean hain zuzen.

–Badakizu, zeuk gura duzun arte gera zaitezkeela Damian –esanez hasi zen erraina hileta elizkizunetik etxera bueltan.

–Ez dakit zure aita erresidentzia batean hobeto ez legokeen, Mikel; gainera adin horretan, badakizu, profesionalak beste esku bat izaten dute helduekin, eta bera ere lasaiago egongo da... –esanda jarraitu zuen etxean hartu eta aste betera, alargundu berria arazo bat bihur zitekeela sumatu zuenean.

–Agurea etxetik ez badoa neu joango naiz! e Mikel? ezin dut gehiago, nerbioak dantzan jartzen dizkit eta badakizu zer dioen psikologoak horren gainean ezta? Ipurdia gizendu zaidala eta madalena gehiegi jaten ditudala ez dit ba esan!

Hemeretzi egun igaro zirenerako, Mikelek ez zuen telefono gidan zahar-etxeko zenbakirik bilatu behar izan, emazteak poltsatik atera eta eskura eman zion zuzenean. Erabakia aurretik hartuta zegoen.

Damian bera ere kargutzen da bere izaeraren *berezitasunaz* eta onartu ere onartzen du, elkarbizitza arrunt bat ezintasuneraino zailtzeko gai izan daitekeela. Hala ere, horren errua, edo behintzat erruaren zati bat Adelaidari dagokiola uste du.

Oso emakume azkarra zen Adelaida, arazoak gertatu aurretik konpontzen dituzten horietakoa, erdi sorgina Damianen aburuz.

Momenturo senarrari buruan zebilkiona modu esoteriko batean irakurtzeko gai zen, eta nitroglizerina baino ezegonkorragoa den Damianen izaera gizarteratzea lortzen zuen, ateraldi konprometituak desaktibatuz, edo gutxienez era kontrolatuan zartaraziz. Damianek jende aurrean kirtenkeriaren bat botako zuen susmoa hartzen zuenean esaterako, alkandoraren azken botoia lotzeko keinua egiten zion Adelaidak, eta ezkutuko kode honekin Damianek bazekien alkandoraren botoiarekin batera ahoa ere itxi behar zuela.

Damianen erretolika Adelaidari berari zuzenduta zihoanean, aldiz, baietz esan baina ez zion sekula kasurik egiten. Horrela egin zion hil zen egunean bertan ere, Damianek mesedez gogor eusteko eskatu eta berak buruarekin baietz erantzun zionean.

Eskaileretan gora alkandoraren poltsikora bota du eskua Damianek, altxorrak bere lekuan jarraitzen duen ikusteko. Han dago bai, erresidentziako begiraleen miaketetatik salbu, ia kontrabandoan sartutako Marlboro paketea.

Hamar urte badira medikuari azken tabako paketea, birrikak zabaltzeko spray bategatik trukatu zionetik. Hogeita hamar urtetik gora, erretzen zituen zigarroen muturrei kolore rubioa zuritu zitzaientetik.

Aspalditik sentitu gabeko erretzeko gogoia piztu zaio bat-batean Damiani. Aspaldi sentitu gabeko urduritasuna baretzeko izango da agian.

Logelara igo orduko telebista gelatik pasatu da. Gaueko albistegia bukatzeaz dago eta zazpigarren aldiz biharko eguraldiaren iragarpena ikusi nahi du. Gaur, ordea, ez da Euskal Herri gaineko laino endemikoari errebista pasatzera etorri, gaur penintsularen eskuinaldera begiratu du. Galiziako kostalde atlantikoan eguraldi nahasia iragarri dute, ekaitz arriskua. Isobara mapa begiratuz, Portugalen ere berdintsua izango dela imajinatu daiteke.

Iragarki taularen paretik pasatu eta begirada mekaniko bat bota dio letra gorridun paper bati, azterketara aurkeztu ez den ikasleak noten zerrendan bere izena bilatzen duen ilusio berarekin.

“Bihar arratsaldean Kikili pailazoaren ekitaldia 16:00etan hasita areto nagusian”.

–Beste pailazokeria bat! hau gutxienez ez dute kamuflatu. Lelotu egin nahi gaituzte zerri hauek. Botikekin burua hustu, umekeriokin bete eta izaera ezereztu, horixe baino ez dute nahi. Eskerrak guztiz ergeldu baino lehen alde egin behar dudana –iragarki taulari lepoa eman bezain laster baretu da agurea.

Zahar-etxean antolatzen diren ekintza eta ikastaro gehienak ergelkeria hutsa iruditzen zaizkio Damiani. Umetan ere ez zituela loretxoak eta txoritxoak margotzen eta ez dela orain hasiko esaten du. Gainera, bere boikota nahikoa ez, eta gogotsu dihardutenei ere iseka egiten die:

–Ene bada! Haurtzaindegia ere badugu hemen! Zer landu duzue gaur? Plastilina? Pixoihaletan behintzat badaukazue umeen antz apur bat! –eta mesprezuz barre egiten die gainontzeko egoileei, bere galtzontziloak lehor daudela baieztatu eta gero.

Baina badago Damianek gustura landu duen ikastaro bat, hasiberrientzako informatika eta internet ikastaroa hain zuzen.

Hasieran, saguarekin pantailako gezia modu kontrolatu batean mugitzeak agure temosoaren psikomotrizitate mugak gainditu arren, apurka-apurka hasi zen ikonoen gainean klikatzen eta hauen eginkizunaz jabetzen.

Bigarren hilabeterako ofimatikaren onurez nazkatuta edo, pauso bat urutiago heldu nahi izan zuen Damianek informatikako klaseetan.

–Aizu, tontakeria hauek utzita noiz ikusi behar ditugu ba emakumeak larru gorritan? Nik internet delako honetan lizunkeria baino ez dagoela entzun dut eta hori baieztatu beharra dago! Zaharrak gara motel, zoaz garrantzizkora zuzenean denbora alperrik galtzen ibili gabe –esan zion irakasleari idazkera tailerrari muzin eginez.

–Baina Damian, zure adinean! –esan zion, eta –hau ere bada ba, beti suertatu behar agure zikinen bat klasean –azken hau beretzako gorde zuen irakasleak.

–Zaude isilik praka-lasai hori! Moztu zion Damianek– Badakit neuk ere gaztetako sasoirik ez daukadala baina oraindik gauza naiz odol apurren bat behealde horretan batzeko, eta agian gogortu ez da egingo baina puztu bai, igela bezala!

Demostrazio praktikoa egitera zihoala ikusita, egun hartako klasea bukatutzat eman zuen irakasleak.

Berrogei urte itsasora atera gabe daramatzan Damian, nabigatzailea da berriro. Sarerik gabe sarean dabilen nabigatzailea.

Eguneroko prentsaz, aldizkako kontsultez eta ezkutuko lizunkeriez gain, sare sozialena izan da Damianentzat aurkikuntzarik liluragarriena.

-Hara! Eskela ematen du eta! Zertarako da hau? Hiltzen garenean egunkariko iragarkia aurrezteko? -galdetu zuen *Facebook*-eko aurkezpen orrian, aurpegiko zimurak errukirik gabe erakusten zituen argazkiaren azpian hain zuzen, "Damian Sarasola-1929-Gizonezkoa" irakurri zuenean.

-Lagun berriak egin eta lagun zaharrekin kontaktua berreskuratzeko da Damian -erantzun zion irakasleak eta -zure kasurako eskelarena ere ideia ona litzateke fosil madarikatua! -azken hau agureari lepoa emanda.

Lagun berrien premiarik ez dauka Damianek inondik ere, baina lagun zaharren berri izatearena, ideia txundigarria iruditu zitzaion hasieratik.

Paulo etorri zitzaion burura lagun zaharrak berreskuratzearen kontua atera zenean. Marinel garaiko laguna zen Jose Paulo Bardosa portugaldarra, inoiz izandako lagunik onena dudarik gabe.

Lehenik Paulo Bardosa sarean filtratuta saiatu zen. Barbosa bai baina Bardosa ez omen zen oso abizen zabaldua Portugalen. Paulok askotan zuzentzen zuen ortografia akats hau itsasoratzeko dokumentuetan. Jose, lehen deitura alegia, ez zioten sekula izenean jarri baina berak ere ez omen zuen sekula inon zuzendu.

"Damian naiz, bakailao ontzietako adiskidea" bidali zien lehen bilaketa horretatik eratorritako 37 loturei. Ez zuen erantzunik jaso.

Gomes Bardosa jarri zuen bigarren saiakeran. Sofia Gomes zen emaztearen izena eta Portugalen amaren abizena aitarenaren aurretik jartzen zutela ere akorduan zeukan. Hotzean pentsatuta, Paulo bizirik egotea posible bazen ere, telebistako kateak aldatzen doi-doi asmatzen duen agure batek *facebook*-eko kontua izatea, ez zen munduko gauzarik arruntena.

Oraingoan, "Zure aita al da Paulo Bardosa?" galdetu zien bilaketatik sortutako 17 perfilei. Hiru egunera emakume batek erantzun zuen, "Bai nire aita zen Paulo Bardosa. Nor zara zu?". Carmen Gomes Bardosa zen, Paulo eta Sofiaren alaba.

Ez zen izan hura Damianek bueltan jaso nahi izan zuen erantzuna. "Bai nire aita da" espero zuen, orainaldian, eta ez epitafio zirudien "Bai nire aita zen" hura. Aditz bakarrak nola alda zezakeen erantzun bat horrenbeste.

Hamaseina urterekin ontziratu ziren Damian eta Paulo lehenengoz *Signum Crucis* bakailao ontzian. Biak aurrenekoz gurasoen etxea utzita. Biak, norabide desberdinean bazen ere urrutitik trenez Vigora iritsiak. Biak Vigotik, nora eta Terranovara.

Lehenengo hiru asteetan bai berak eta baita Paulok ere zorabioaren zorabioz, amaren esnea ere bota omen zuten. Orduko marinel nagusiek esaten zuten moduan, itsasoan ibiltzea balsa dantzatzea bezalakoa da, olatuen konpasean joan behar du itsasgizonak. Lehenengotan etengabe zango trabatu arren, hartu zioten bai azkenerako erritmoa *Signum Crucis*-en pausoari.

Terranovako bizimodu gogorak estu lotu zituen Damian eta Paulo. Kresalak erre zuen bien nerabezaroa, bakailaoz lepo atera eta berriro hutsik urperatzen ziren sareen artean.

Alabari kontatzen hasita, umorez gogoratzen du Damianek, bere aita Paulok ez ziola itsasoko gaietan eztabaidarako biderik ematen. Marinelik onenak portugaldarrak zirela esaten zuen, gero akaso beraien "anaia" ingelesak, eta azkenik *os porcos Espanoles!* esaten omen zuen zirikatu guran.

Herrian bizitako eskasiaren aurrean ur emankorrak ziren garai hartan Terranovakoak, lau urteko lanarekin etxe bat ordaintzerainokoak hain zuzen. Baina bere burua justifikatu guran edo, gazteari dirua etorri bezala joan egiten zaiola esanda, Damianek San Juan de Terranovako parrandei buruzko pasadizoak ere idatzi dizkio Carmeni.

Marisko hutseko bazkariak, txanpan frantsesezko errekek eta umetako arto bizar xumeen ondoan, gizontasun ikurra zen Humphrey Bogart-en tabako amerikarra gogoratzen ditu.

Emakumeez ere asko hitz egiten omen zuten Paulok eta berak. Lehen urteetan modu gordinean bakarrik, Rita Hayworth-en ipurdia, Sara Montielen titiak... Terranovako ur izoztuak barrabilen beroaz irakitan jarriko lituzketela pentsatu, eta barregura datorkio Damiani. Azken hauek noski ez dizkio alabari zehatz-mehatz horrela kontatu.

Udazken berdinean ontziratu ziren biak lehengo baita ere, herriko neska banaren argazkiak zorroan ondo gordeta. Paulok Sofiarena, gerora Carmenen ama izango zen neskatila beltzaranarena. Damianek Adelaidarena.

Hurrengo kanpainarako ezkondu ziren biak. Iraganean, portutik ateratzerako itsaso zabalera begira zeuden begiak, orduko hartan kaira begira urrundu zirela aitortu dio Carmeni.

Paulok bi kanpaina beranduago aita izan behar zuela eta, itsasoa betirako uztea erabaki zuen. Sofiaren anaiak ba omen zeukan aroztegi bat Oporto inguruan, eta bertan lanean hastekoa zela aitortu zion Damiani.

Horiek guztiak jarri dizkio Carmeni e-mailez, erdiak berak ere etxean entzunda izango dituelakoan. Hortik aurrerakoak berarentzat gorde ditu. Gutxi omen dago gogoratzeko, eta are gutxiago ezezagun baten aurrean harro kontatzeko.

Damianek beste lau edo bost urte egin zituen itsasoan. Bakailao ontzietatik kanpo izan ziren, ordea, diru baldintzen arabera petrolio-ontziak, mineral-ontziak, ferryak eta bestelako ur gainerako tramankuluak tartekatuz.

Mikelek hiru urte zeuzkan aita betirako lehorreratu zenerako. Bost urte bete zituen arte ordea, aita esan beharrean Damian esaten zion aldizka baino ikusten ez zuen gizon arrotzari.

Itsasoko diruarekin betirako erretiratu ezinik, han eta hemengo fabriketan saiatu zen Damian. Bakar batean ere ez zuen hilabetea konplitu. Azkenean, baserri baserri pentsu banatzaile ibili zen, kotizazio osorako gelditzen zitzaion hogeita hamabi urteko kondena bukatu arte.

Azkar lehortu zen itsasoko oparotasuna. Marlboro amerikarrezko iragan doratutik, Ducados beltzaren kolore bereko etorkizunera pasatu zen Damian oinen azpiko zoruak mugitzeari utzi zionean.

Goizeko zortzietan taxia atean zain izango duela eta, oheratu aurretik prest utzi nahi ditu maleta, dirua, pasaporte eta hegazkineko billetea.

–Hau duk hau azal lakarra Damian! Marinela lehortu egiten duk itsasotik kanpo, bakailaoa gatzetan bezala –diotso Damianek bere buruari, logelako ispiluan bizarra kendu orduko bere aurpegiaren piura aztertu eta luzaroan begiratu gabeko argazki bat eskuetan hartuz.

Argazkian mutil gazte bat ageri da, hamasei bat urtekoa, lepoan sekula inork ikusitako bakailaorik handiena dakarrela. Piztiaren burua mutikoaren sorbaldan berdinduta, honen isatsa lurrean arrastaka ikusten da. *A la atención de Damian Sarasola de parte del Capitán Indalecio Ortiz de Zarate. San Juan de Terranova, 9 de Noviembre de 1944* dio atzeko aldean.

Soldata oparoarekin batera, kapitainak oparitutako argazkia eta argazkiko bakailaoa bera izan ziren kanpaina hartatik herrira ekarri zituen gomutakiak. Naturaren bitxikeria hura herrian zegoen taberna bakarrean jarri zuten zintzilik, *King-Kong*-en filmetan tximu erraldoia jende aurrean erakusten den bezala. Jateko ordua iritsi zenerako, herri guztia nazkatuta zegoen jadanik arrainaren haragi zuria ikuste hutsarekin.

–Gaur gaueko panga ikusi balute, ederki eskertuko lukete bakailao erraldoi hura –pentsatu du erdi barrezka bizarrari azken ukituak eman bitartean.

Armairua zabaldu, maleta atera eta bere arropa apurra irauli du bertara. Alkandora zuria ikusi du zintzilik eta hura aldean eramango duela erabaki du. Bost urtetik gora daramatza alkandora zuri hura jantzi gabe, Adelaida besotik hartuta igande goizetako azken pasioa egin zuenetik alegia.

Pasio ordu haiek eta gazteagotan egindakoak gogoratzen ditu Damianek lur geldian igarotako momenturik gozoenak bezala.

–Clark Gable eta Ava Gardner ginen. Zeharkako zenbat begirada ez ote ditu jaso alkandora zuri honen lepoak... –malenkoniazko begi bustiekin begiratzen dio alkandorari.

Malenkoniaz ez ezik, inbidiaz ere busti ohi dira askoren begiak, eta begi hauekin zeharka baino ezin omen da begiratu Damianen esanetan. Inbidiaz bustitako begiek, inguruko zorionean beraien zorigaiztoa ikusten dute, ardoz bustitakoek, itsaso zabalean lurra ikusten duten modu distorsionatu berean.

Ardoz eta inbidiaz busti-bustita zetorren auzoko gizon batek behin esandakoa amorrus gogoratzen du Damianek.

–Hara Damian, laguna zarelako esango dizut e? Zera... herrian esaten dute zure andre hori, zu itsasoan zinela *Frantsesarekin* konpontzen zela... nik ez dakit, baina gauza hauek entzuten direnean...

–Eta nork esan du ba kontu hori? –Damianek ez zeukan mozkor kontakatilua laguntzat, honek bere burua horrela aurkeztu arren.

-A ez! Hori ez dizut esango...

-Ba esan duen horri esaiozu nire partez, gezurak asmatzen baino hobeto legokeela hilda -"Hildaren" lekuan "isilik" esanda ere nahiko izango zela pentsatzen du Damianek gaur.

-Ño Damian, karga askotxo ez al da ba hori gizonari eramateko? -mozkorrak serio jarrita.

-Karga askotxo bada erdia hartu zeuretzat! -honela bukatu omen zuen elkarrizketa Damianek, abadeak meza "amen" esanda bukatzen duen bezala.

Mozkorra zen bai, baina leloa ez eta agudo eten zuen ustezko adiskidearekin solasaldia, ekarri zuena baino pauso zuzenagoz alde egiteko.

Entzundakoak baino entzun beharrak berak mindu zuen Damian orduko hartan. Bazekien Adelaida eta Frantsesa esaten zioten gazte belgikarraren artekoa, harreman komertziala baino ez zela, Adelaidak garai hartan zeuzkan zorabioak tratatzeko gazte honek saltzen zizkion sendabelarrak medio. Bestela ere ez zegoen modu sexualean kezkatzeko arrazoirik, hain modu berezian mugitzen zen mutil atsegin hura herriko gizon ezkondu baten amorantea zen eta.

Oparotasuna eta edertasuna jaki astunegiak ziren garai hartako gizarte miserablearen digestiorako.

-Inbidiaren bihotzerrea, gaur gaueko pangarenaren parekoa... -irribarrez alden du begiak alkandora zuritik.

Maletaren kremlera itxi eta azken erreposoa egiteari ekin dio. Taxirako eta gainontzekoetarako 250 euro prest. Dokumentazioa, bankuko libretak eta bestelako burokrasia prest. Bere izen deituren aurretik, Bilbao-Lisboa 9:30 a.m. jartzen duen hegazkin billetea prest. "*Hotel Sete Mares, Praia da Consolação (Portugal)*" zigilu elektronikoarekin bukatzen den e-maila, paperean inprimatuta eta prest.

Zazpi egun badira Carmenek azken e-mail hau bidali dionetik. Txikitako aitaren itsasoko ipuinak nola gogoratzen dituen kontatzen dio, aipatzen zuela hark ere Damian izeneko lagun euskaldun kaskagogor bat bakailao ontzietan berarekin hasitakoa. Bere aita diruagatik ontziratu zela baina Damian zelakoa ezetz, edo ez diruagatik bakarrik behintzat. Damian benetako itsasgizona zela kontatzen omen zuen aitak, lehorrean lehortu egiten diren horietakoa.

Gero, aita hil zenetik hamabost urte pasa berri direla idazten du, ama baino bi urte lehenago hil zela, eta ez Albak, ezta Mariak ere ez dituztela aitona-amonak ezagutu jartzen du penaz.

Senarrarekin batera lana utzi eta lehengo udan *Praia da Consolação* deritzon hondartza baten parean hotel txiki bat zabaldu dutela azaltzen du hurrena. Hamar logela baino ez dituela baina guztiak itsasora begira daudela azpimarratzen du, pantailaz beste aldekoaren oniritzia jasotzeko edo.

Zigiluaren aurretik "*Minha casa é sua casa*" esanda bukatzen da idazkia.

Damianek birritan pentsatu gabe "Hotel Sete Mares, Praia da Consolação" bilatu zuen interneten. Hotel liluragarria da, garai bateko itsasontziak bezala apaindua, bere soka, aparailu eta sareekin. Gelako horma oso bat Atlantikora zabal daitekeen leihoa da. Hormetan marinelen hainbat argazki daude, zuri-beltzean guztiak, garaiagatik Damian bera ere horietako batean agertzeko modukoak dirudite.

Argazkiren batean bera azaldu daitekeen hipotesiarekin nahikoa ez, eta guztiz lehortu gabe gelditzen zaion hezetasun apurrari eutsiz, bere etorkizuna Portugalen imajinatu du Damianek. Agure batek iragana ez ezik etorkizuna ere eduki dezakeela pentsatu, eta zahar-etxeko momifikazio programatutik kanpo "Consolação" apur bat bilatu behar duela erabaki du.

Kontuak dagoeneko ondo eginda ditu Damianek. Web orrian jartzen duenez 35 euro balio du loak gosariarekin Sete Maresen. Bazkaltzeko, afaltzeko eta bestelakoetarako beste 20 euro egunean. Guztira 55 euro eguneko, borobilduz 60. Bankuko aurrezkiak eta ingresatu berri dioten kreditu pertsonalarekin 60.000 euro batzen ditu. Hortaz, mila eguneko kanpaina da bihar goizean hasiko duena.

Hamasei urterekin lehen aldiz ontziratu zeneko zirrara bera sentitzen du Damianek behatz puntetatik gora.

–Oraindik bizirik hago Damian, ez zaik odola guztiz lehortu, ez haiz bakailaoa ez horixe! –diotso bere buruari. Badaki gaur ere, hirurogeita sei urte lehenago bezala ez duela lo handirik egingo.

Bihar goiz erdirako, egongo da kezka eta mugimendurik erresidentzian. Gelara sartuko dira agurea lotan dagoen edo beste asko bezala, betirako lokartu den ikusteko. Ohea hutsik aurkitzerakoan, mahai gaineko notatxoari begiratu eta Mikel semeari deituko diote arduraz.

Mikel lanpetuta egongo da eta ez du lehenengoan hartuko, bigarrenean ere ez normalean. Azkenean hartuko du, hirurogeigarren saiakeran edo, eta gertatutakoa azalduko diote. Mikel ez da aztoratuko, segurutik ez zaio eguneko gauza garrantzitsuena ere irudituko, eta txikitan Damian deitzen zion gizonari zor dion indiferentziaz lanean jarraituko du.

Gauean emazteari kontatuko dio. Hau, itxurazko nahigabetik benetako nahigabera pasatuko da, agureak eskatu duen mailegu pertsonalaren abala bizileku duten etxea dela jakiten duenean.

–Zurea da errua Mikel! Hau lehenago lotu behar zen, lehenago! Ez al duzu ezer esan behar? tentel hori! –galdetuko dio oihuka, baina segurutik Mikelek ez du esateko ezer edukiko.

Tabako paketea zabaldu eta zigarro bat piztu du, nikotinarekin batera Terranovako kresala berriro arnastea bilatuko balu bezala.

–Bihar egun ederra izango da! –ohean sartu eta argia itzali du zigarroarekin batera.